

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren arrakasta ziurtatzeko, funtsezkoa da funtzionamenduko jarduera batzuk gauzatea, hala nola: merkatu ikerketa, produktuaren garapena, ekoizpen eraginkorra, pertsonalizazioa eta barietatea, lineako salmenten plataforma, marketing-a eta publizitatea, lankidetzak estrategikoak, langileen gaikuntza, berrikuntza eta iraunkortasuna.

Hasteko, merkatuaren azterketa sakona gidatuko dugu, bezeroen lehenetsunak eta beharrak ulertzeko, eta zapatila pertsonalizagarrien diseinuan bereizteko aukerak identifikatuko ditugu. Ere, diseinatzaileekin eta oinetakoetan adituak direnekin elkarlanean arituko gara kalitate handiko zapatilak sortzeko, estetikoki erakargarriak eta funtzionalki moldakorrak, hainbat kirol jardueretarako zola espezializatuekin (running, mendian ibiltzeko, etab).

Bestalde, harreman sendoak ezarriko ditugu fabrikatzaile fidagarriekin, zapatilen ekoizpenaren eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeko, kalitate-kontrol zorrotzak ezarriz. Gainera, zola espezializatuen katalogo zabala eskainiko dugu hainbat kiroletarako, eta pertsonalizazio-sistema bat garatuko dugu, bezeroek kolore eta estilo desberdinak aukera ditzaten.

Beste dokumentu batzuetan ondo aipatu dugun bezala, merkataritza elektronikoko plataforma erabilera bat diseinatuko dugu, gure produktuen ezaugarri bakarrak nabarmenduko dituen, zola bakoitzari buruzko informazio zehatza emanez; hau da, web-orri bat egingo dugu bezeroek gure produktuak modu eskuragarriagoan eros ditzaten. Ere, zapatilen laginen aldakortasuna eta onurak nabarmenduko dituzten marketing-estrategiak garatuko ditugu, sare sozialen plataformak erabiliz eta kirol-influencerekin elkarlanean arituz ikusgarritasuna areagotzeko. Gainera, bezeroari zerbitzua eraginkorra ezarriko diogu galderak azkar erantzuteko eta arazoak konpontzeko, bezeroaren gogobetetasuna bermatuko duten itzulketak eta aldaketak politikak ezarriz.

Horrez gain, kirol denda, gimnasio eta kirol-marka ezagunekin elkarrekin aztertuko ditugu, gure produktuen ikusgarritasuna eta sinesgarritasuna handitzeko. Eta, salmental langileei gaitasun zehatza emango diegu gure produktuen ezaugarriak erabat ulertzeko eta bezeroei aholkularitza eraginkorra eskaini ahal izateko. Gainera, zapatila bat erostean, gure bezeroei bazkide edo bezero berezi bihurtzeko aukera emango diegu. 7,98€-ko hileko tarifaren truke, beste bezero berezi batzuekin esperientziak partekatzeko aukera eukiko dute, hileko jarduera eskusiboak eginez; mendian egun bat pasatzea edo ibilbide espezifikoa jarraitzea etab. Bezero berezien komunitatea gero eta handiagoa izan, gero eta ibilbide nabarmenagoak edo



famatuagoak egingo ditugu, adibidez, Santiagoko ibilbidea. Gure ustez, programa honek kalitatezko oinetakoak saldu aparte, abenturetan parte hartzeko aukera ere eskaintzen du.

Amaitzeko, oinetakoen diseinuaren eta teknologia berrien joeren berri izango dugu, etengabe gure produktuak hobetzeko eta eguneratzeko moduak bilatuz. Eta azkenik, gure produktuen fabrikazioan jardunbide iraunkorrak kontuan hartuko ditugu, ingurumenaz jabetzen diren kontsumitzaileak erakartzeko eta enpresa-irudi arduratsua eraikitzeko.